


Argitaratzailea: HAURRESKOLAK Partzuergoa.
Avda. Otaola, 29. Jaizkibel eraikuntza, 1.
20.600 - EIBAR
GIPUZKOA
www.haurreskolak.net

ISBN: 84-609-6389-6
Zka.: 05149157


HaurreSkOLak



Textuak: Rafael MENDIA.
Diseinuaren arduraduna: Belén MORENO.
Irudiak: Ian Villar, Ane Fernandez, Laura Pardavila,
Eider Burugain, Nerea Suarez, (...)
(Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa).
Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S.L.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK
HAURRESKOLAK PARTZVERGOAN

Rafael Mendia



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.	7
2. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK HAURRESKOLAK PARTZVERGOAN.	9
3. HAURRESKOLAK PARTZVERGOKO HEZITZAILEEK HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETARAKO ERABILTZEKO PROTOKOLOAK.	13
3.1. 1. Egoera:	14
3.1.a Ezintasun Egiaztatapena lortzeko nora jo.	16
3.1.b "Esku-hartze goiztiarra" zerbitzua ematen duten erakundeak (Foru Aldundiek homologatuak).	17
3.2. 2. Egoera:	22
3.2.a Lehenengo behaketa.	24
3.2.b Esperientzia arloak.	25
3.2.b.1 Identitatearen eta autonomia pertsonalaren arloak.	26
3.2.b.2 Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea.	28
3.2.b.3 Komunikazioa eta irudikapena.	30
3.3. 3. Egoera.	32
3.4. 4. Egoera:	33
3.4.a Zenbait ideia oinarritzko haurrenganako tratu txarrei buruz.	34
3.4.b Tratu txar motak.	35
3.4.c Tratu txar motak, adinaren arabera.	35
3.5. 5. Egoera: Situaciones extraordinarias.	37
4. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN GIDA LABURRA.	40
4.1. Down-en sindromea duten haurrak.	44
4.2. Garapen atzerapen orokorra duten haurrak.	46
4.3. Ikusmen urritasuna duten haurrak.	48
4.4. Entzumen urritasuna duten haurrak.	50
4.5. Mugitzeko urritasuna duten haurrak.	52
4.6. Autismoa duten haurrak.	54



Dokumentu honek HAURRESKOLAK Partzuergoko hezitzaileak orientatu nahi ditu hezkuntza premia bereziak dituzten edo izateko arriskua duten haurren ardura hartzen dutenerako.

Hezitzaile guztiek dakite zein garrantzitsua den hezkuntza eta laguntza goiztiarra gutxitasunak dituzten haurrentzat, haien garapenaren zenbait alderdi indartzeko eta hezkuntza premia bereziak dituzten jakiteko eta aurreikusteko.

HAURRESKOLAK Partzuergoko haurreskolen funtzioa ez da errehabilitazioko eta habilitazioko programak garatzea; laguntza goiztiarraren esparruan lan egiten duten erakundeen eginkizuna da hori. Hezkuntza eta laguntza programaren bitartez, aurrekoek egiten duten esku-hartzea indartzea, osatzea eta jarraipen laguntza ematea da haurreskolen funtzioa, zerbitzua ematen duten erakundeekin batera lan eginez.

Aipatu behar da Partzuergoko haurreskoletan egiten diren hezkuntza eta laguntza jarduerak osatu egiten dutela beste erakunde batzuetan haurrak goiz hartzeko egiten duten lana. Horretarako, aurreikusitako hezkuntza proiektua garatzen da haur guztientzat, eta arreta berezia jartzen da gutxitasunak dituzten umetxoengan.

Lan horrek oinarri hauek ditu: behatzea, komunikazioa eta mintzaira bizkortzeko ahalegina, motrizitatea, gizarteratzea eta abar lantzea, guraso edo arduradunei informazioa ematea, laguntza goiztiarra ematen duten erakundeekin harremanetan egotea eta beharrezko gertatzen diren zerbitzu zehatzak ematea.

Ikusten denez, Partzuergoko haurreskola bakoitzaren hezkuntza proposamenetan, haur guztiekin –bai eta gutxitasunak dituztenekin ere– landu beharreko alderdi horiek kontuan hartu behar dira.





Azken batean, HAURRESKOLAK Partzuergoko hezitzaileak haur guztien hezitzaileak dira, baita hezkuntza premia bereziak dituztenena ere.

Dokumentu honetan orientabide orokorrak, ekintza protokoloak eta erabakiak hartzeko prozesu errazak azaltzen dira, profesionaleri hezkuntza eta laguntza jarduna hobetzen eta garatzen lagundu ahal izateko.



Haurren garapeneko lehen urteetan, eboluzio faseak konstanteak izanda ere, haur bakoitzaren ezaugarriek prozesua baldintzatzen dute, eta prozesu horretan alderdi hauek guztiak hartzen dute parte: gizabanako bakoitzaren ahalmen psikobiologikoei, ingurune sozialaren ezaugarriek, ematen zaaien estimulazioak eta helduek jokatzen dituzten rolerak –guraso eta hezitzaileek, batez ere–.

Haurrek heltzeko erritmo desberdinak dituzte, eta, beraz, haur guztiek izaten dituzte hezkuntza premiak garapenaren zenbait unetan. Horregatik, horiek zainketa pertsonala eta hezkuntzarako laguntza egokiak emanez aurreikusi eta konpentsatu behar dira.

Ez da erraza, beraz, garapenaren lehen urteetan argi desberdintzea noiz diren aldi baterako hezkuntza premiak, garapen prozesuari berari lotuak, eta noiz hezkuntza premia bereziak.

Partzuergoko haurreskoletan hasten diren haur guztiek izango dituzte oinarritzko premia batzuk, haur bakoitzaren garapen uneari eta garapen erritmoari dagozkionak. Hala ere, gaur egun, gero eta aukera gehiago daude zenbait nahaste goiz hautemateko, eta, ondorioz, oso goiz ezagut daitezke hezkuntza premia bereziak, eta laguntza egokia eman daiteke gutxitasunak konpentsatzeko.

Horregatik, baliteke gure haurreskoletan eskolatzen diren haurren artean hezkuntza premia bereziak dituztenak egotea lehendik antzemandako nahaste edo gutxitasun batengatik. Mugimenduaren nahaste bat edo garapenaren atzerapena duten haurrak izan daitezke, entzumen edo ikusmen urritasunak dutenak, edo hezkuntza premia jakin batzuei lotutako kromosomopatiak, edo gizarte edo familia ingurune kaltetuetatik datozen haurrak; beraz, ***hezkuntza premiak gizabanako bakoitzarenak eta askotarikoak izan daitezke.***

Horrelakoetan, eskolatzeko unea iristen denerako hezkuntza premia bereziak ezagunak izatea da ohikoena, bai eta hezitzaileek ikasturtea hasi aurretik orientazioa eta laguntza jasotzea ere, haur horientzat onuragarri diren hezkuntza alderdiei buruz eta laneko programa egokienari buruz.





Une horretan hasten den gizarteratze prozesuak hauren garapena bultzatzen du; gainera, haur horien premia bereziak adin bereko beste haur guztien oinarritzko premia berberak dira:

- Zainketa pertsonal eta afektiboaren beharra.
- Norberaren autonomia garatzeko beharra.
- Norberaren gorputzaren ezagutza eta motrizitatea garatzeko beharra.
- Norberaren mundua eta afektibotasuna garatzeko beharra.
- Gizarteratzeko beharra, eta besteengandik ikasteko beharra.
- Ingurune fisikoa ezagutzeko eta ulertzeko beharra.
- Besteekin komunikatzeko gaitasunak garatzeko beharra.

Gutxitasunak dituzten hauren hezkuntzarako emango diren orientabide orokorrak bat datoz adin bereko edozein hauren hezkuntzarako ematen direnekin.

Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrekin lan egiteko jarraibideak, premia berezi zehatzten eta nahasteen arabekoak, talde osorako hezkuntza jarduera orokorraren barruan sartu behar dira.



HAURRESKOLAK Partzuergoko ikasgeletan, hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak daudenean, alderdi batzuk hartu behar dira kontuan. Izan ere, taldearen oinarrizko alderdiak berdinak izan arren, behaketa berezia eta erabaki espezifiko batzuk behar izaten dira. Alderdi hauek dira kontuan hartu beharrekoak:

- Eskolara egokitzeko aldia, beste haur batzuen baino luzeagoa izan daiteke eta.
- Garbiketa eta elikadurako oinarrizko ohiturak irakastea.
- Esfinterrak kontrolatzen irakastea.
- Elkarrekintza izatea beste hurrekin, objektuekin eta jokoetan.
- Irakaskuntza-ikaskuntza giroa sortzea, ingurunea koherente egingo duten jarduerak edo gertaerak eguneroko izan daitezen, eta, horrela, hurrei beren burua ingurune horretan kokatzen lagun diezaiegun.
- Haurra zaintzen lagun dezaketen zerbitzuekin eta familiekin harremana izatea.

Egoera horietan, zenbait gauza hartu behar dira kontuan:

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN HPB-AK DITUZTEN HAURRAK ESKOLATZEN DIRENEAN,

ALDERDI HAUEK HARTU BEHAR DIRA KONTUAN:

I. BESTE EDOZEIN HAURREKIN BEZALA:

Familiarekin harreman estua izatea, hauraren premiak zein diren jakiteko eta egokitze prozesua elkarrekin aztertze.

Egokitzapen orokor bat egitea haur bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Guztiok ez gara berdinak.

Garapen erritmoak errespetatzea eta garapen une bakoitzeko premiei egokitzea.



HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN HPB-AK DITUZTEN HAURRAK ESKOLATZEN DIRENEAN,

ALDERDI HAUEK HARTU BEHAR DIRA KONTUAN:

2. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK KONTUAN HARTUTA:

Haurraren hezkuntza premia bereziak zein diren jakitea, hezkuntza eta laguntza jarduerak haiei egokitzeke.

Laguntza goiztiarreko programa lantzen duten erakundeekin harremanak izatea, baldin eta haurrak edo familiak programa horietako batean parte hartzen badu.

Familia orientatzea haurraren garapenean atzerapen larriren bat hautemanez gero, edo ingurune hurbilak hauteman ez duen gutxitasunen bat duela irudituz gero.

Partzuergoko haurreskoletan koordinazioa ziurtatzea, Haurreskolatik aukeratu den bi urteko gelara modu egokian igarotzeko; eskolatzeko baldintza onenak lortzea da helburua.

Haurreskolako ordutegia malgua izateko beharra aurreikustea, gerta baitaiteke haurra mediku edo laguntza goiztiarreko zentroren batera eraman behar izatea.

Zenbait material edo komunikazio sistema egokitzea edo espezifikokoak egitea, beharra izanez gero.





3.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZITZAILEEK HEZKUNTZA

PREMIA BEREZIEK ARAKO ERABILTZEKO PROTOKOLOAK.

Aurreko atalean azaldutako esku-hartze orokorra oinarri hartuta, prozedura homogeneo batzuk finkatu behar dira, hezitzaile guztientzat eta HAURRESKOLAK Partzuergoa osatzen duten zentro guztientzat.

Prozedurak egoeren arabekoak izaten dira. Ondoren, egoerak zerrendatu ditugu.

- a) Haurren ardura duten pertsonak (aitek, amek, tutoreek, hezitzaileek, haurrak hartzen dituzten familiek eta abarrek) haurrak gutxitasun bat duela adieraztea.
- b) Haurren ardura duten pertsonak (aitek, amek, tutoreek, hezitzaileek, haurrak hartzen dituzten familiek eta abarrek) haurrak gutxitasun bat duenik aipatu ez arren, hezitzaileak gutxitasuna duela jakitea edo uste izatea.
- c) Haurra arrisku sozialeko ingurunean bizitzea.
- d) Tratu txarrak ematen zaizkiola uste izateko arrazoi sendoak egotea.
- e) Partzuergoko haurreskoletatik ikastetxeko bi urteko gelara igarotzeko garaia.

Jarduteko prozedurak hurrengo orrialdeetan azaltzen dira. Dena den, aipatu behar da prozedura horiek testuinguru bakoitzeko egoera pertsonal eta sozialei egokitu behar zaizkiela.







WU

3.1.

1. EGOERA.





3.1.a

EZINTASUN EGIAZTAPENA LORTZEKO NORA JO.

ARABA

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA- ARABA.
Izapide Administrazioei Buruzko
Informazioa eta Horien Kudeaketa.

Diputazio kalea, 13 - 5.
01.001 - VITORIA-GASTEIZ.
Tel.: 945 15 10 15
Faxa: 945 15 10 17

BIZKAIA

EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN OINARRIZKO ZENTROKO.
"BALORAZIO ETA ORIENTAZIO ATALA".
Pertsona Ezinduen Zerbitzua.
Gizarte Ekintza Saila.

Marcelino Oreja kalea ,
3-5.
48.010 - BILBAO.
Tel.: 944 06 78 02

GIPUZKOA

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK ETA
EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONEN
ETA ORIENTAZIO ATALA.

EDIFICIO TXARA-2.
Zarategi pasealekua,
99. zenb.
20015 - DONOSTIA.
Tel.: 943 48 25 00
Faxa: 943 48 26 66



3.1.b

**“ESKU-HARTZE GOIZTIARRA” ZERBITZUA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK
(FORU ALDUNDIEK HOMOLOGATUAK).**

ARABA	BALORAZIO ETA ORIENTAZIO ZENTROA.	k/ Manuel Iradier, 27 - behea. 01.005 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 23 31 90
	ASPASOR. GORREN GURASOEN ETA LAGUNEN ARABAKO ELKARTEA.	Aragoi kalea, 11- behea. 01.003 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 287392
	ASPACE ALAVA. GARUN PERLESIA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO ELKARTEEN ESPAINIAKO FEDERAZIOA- ARABA.	Vicente Abreu Margolariaren kalea, 7 - 1. dptua. 01.008 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 24 59 60 Faxa: 945 22 55 50 E-maila: asociacion@aspacealava.org
	APDEMA. “ADIMEN URRIKO PERTSONEN ALDEKO ARABAKO ELKARTEA”.	La Paloma kalea, 1 - behea. 01.002 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 28 97 71 Faxa: 945 25 80 99 E-maila: apdema@apdema.org Web orria: www.apdema.org



ARABA	DOWN-EN SINDROME DUTENEN ALDEKO ARABAKO "ISABEL ORBE" ELKARTEA.	Vicente Abreu Margolariaren kalea, 7 - behea, 11. dptua. 01.008 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 22 33 00 Faxa: 945 22 33 00 E-maila: isabelorbe@teleline.es
	"ARAZOAK". AUTISMOAREN ARABAKO ELKARTEA	Antilletako pasabidea, 2 - 4. bulegoa. 01.012 - VITORIA-GASTEIZ. Tel.: 945 22 18 59 Faxa: 945 22 50 66, E-maila: maikaro@euskalnet.net
BIZKAIA	"ALTXA". HAURREN ETA NERABEEN OSASUNA SUSTATZEKO ELKARTEA.	k/ Barrainkua, 16 - 1. 48.009 - BILBAO. Tel.: 944 23 75 50
	APNABI. AUTISMOA ETA BESTE PSIKOSI BATZUK DITUZTEN HAURREN BIZKAIKO GURASO ELKARTEA.	GOIZ programa. Aita Patxi plaza, 10 - behea 13. (Sarrera Navarro Villoslada kaletik) 48.015 - BILBAO. Tel.: 944 75 57 04
	ASPACE. GARUN PERLESIA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO ELKARTEEN BIZKAIKO FEDERAZIOA.	k/ Máximo Agirre, 18 bis - 5. 2. dtua. 48.011 - BILBAO. Tel.: 944 41 47 21

?
BILBAO?
o BILBO?



BIZKAIA

HAUR PSIKOLOGIAKO ETA ESTIMULAZIO
GOIZARREKO ZENTROA.

Ercilla kalea, 24 - 2. 10. dptua.
48.011 - BILBAO.
Tel.: 944 15 73 81

DOWN-EN SINDROMEAREN DUTENEN EUSKAL
HERRIKO FUNDATZIOA.

Iparragirre kalea, 9 - 4.
48.009 - BILBAO
Tel.: 946 61 12 22

UGATZ.

k/ Bixente Kapagana kalea,
21 - esk (escalera dcha??)
48.215 - IURRETA. (BIZKAIA).
Tel.: 944 66 83 70

?

GORABIDE.
ADIMEN URRIKO PERTSONEN ALDEKO
BIZKAIAKO ELKARTEA.

Lcdo. Poza kalea, 14 - 2.
48.011 - BILBAO.
Tel.: 944 43 12 10

ASOCIACIÓN PROYECTO BIDE GAIN.
Haurrak goiz hartzeko.

Basagoiti etorbidea, 87.
48.990 - GETXO.
Tel.: 944 60 88 84

PEDAGOGIA TERAPETIKOKO ZENTROA
PSIKOMOTRIZITATEKO ESKOLA.

Kasune kalea, 29 - beheak.
48.990 - GETXO.
Tel.: 944 30 53 09



BIZKAIA

COLEGIO DE SORDOS
GREGORIO YBARRA.
ONGINTZAKO ELKARTEA.

Madariaga etorbidea, 58.
Tel.: 944 74 59 27
944 75 99 02
48.014 - BILBAO,

GIPUZKOA

IMANOL AIZPURUA LABOA

Karmengo Andre Mariaren kalea,
7 - beheak.
Tel.: 943 32 13 11
20.012 - DONOSTIA.

CRISTINA ANTON MAS

Arrasate kalea, 15-1. ezk.
Tel.: 943 43 03 28
20.001 - DONOSTIA.

ARANTZA BELASTEGUI DURAÑONA

DITEPS.
Bermingham kalea,
5 - behegaina, **eskb.**
Tel.: 943-281767
20.002 - DONOSTIA.

?

MONTSEERRAT CORCHETE SANCHEZ

- San Ignacio klinika.
J. Elósegi Alkatearen hiribidea, 43.
Tel.: 943 28 73 00
20.013 - DONOSTIA.
- PSIQUE - PSICOLÓGIA KABINRETEA.
Nafarroa etorbidea, 25 - 5.
Tel.: 943 52 92 05
20.100 - ERRETERIA.



GIPUZKOA

ANA MARIA SANCHEZ ELIAS

- PSIKOLOGIA KABINETEA.
Okendo kalea, 2 - behea.
Tel.: 943 27 30 97
20.004 - DONOSTIA.
- SAN IGNACIO KLINIKA.
J. Elozegi Alkatearen hiribidea, 43.
Tel.: 943 28 73 00
20.013 - DONOSTIA.

GLORIA MIGUEL GONZALEZ

- Juan de Olazabal kalea, 2 - 3. B.
Tel.: 943 00 22 70
20.100 - ERRETERIA.
- Katalina Erauso kalea, 17 .
Behegaina, C.
Tel.: 943 00 22 70
20.010 - DONOSTIA.

CENTRO PSICOPEDAGÓGICO DE
MONDRAGÓN/PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA.
Profesionalak: KONTXI LAZCANO,
EDURNE IRIONDO eta
ITZIAR IRIONDO.

Ignacio Zuloaga kalea, 10 - 1. ezk.
Tel.: 943 79 48 77
20.500 - ARRASATE.


DOWN-EN SINDROMEA DUTENEN
EUSKAL HERRIKO FUNDAZIOA.
Arduraduna: LAURA ESCAÑO.

Iparraguirre kalea, 9 - 4.
Tel.: 946 61 12 22
48.009 - BILBAO.
(Amorebietan ere badute zentro bat).



2. EGOERA.

3.2.



LARRITZEKO ARRAZOIAK
EGIAZTATZEN BADIRA

ZENTROKO KOORDINATZAILEAK
BERE SUSMOAK AZALDUKO
DIZKIE GURASOEI -AURREZ
AHOLKULARI
PEDAGOGIKOAREKIN HITZ EGIN-,
HAIK GEHIEGI LARRITU GABE.
HAURRA PEDIATRARENGANA
BIDALIKO DU.

GUTXITASUNEN BAT EDO
GARAPEN ATZERAPEN
LARRIREN BAT DUELA
BAIEZTATZEN BADA,
1. EGOERAKO
PROZEDURARI JARRAITU
BEHAR ZAIO.



3.2.a. LEHENENGO BEHAKETA.

“0 Urtetik 2 Urterako Haurren Heltze Prozesuaren Behaketarako Gida”*

EGILEAK:

Ascensión MADRIGAL ANDRÉS,
Estrella PUERTA CLIMENT,
Luz MORÁN GANZO,
Felipe RETORTILLO FRANCO.

Argitu beharra dago hau ez dela helburu didaktikoak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren edukiak ebaluatzeko tresna; izan ere, ebaluatzeko erabili behar den tresna ikasgela bakoitzeko programaziotik abiatuta eratu behar da.

Gida honen bitartez, lan hauek egin ahal izango ditugu:

- Ikasleen heltze mailari buruzko hasierako ebaluazioa, bai banakakoa bai taldearena. Horren arabera, ikasgelaren programazioari buruzko erabakiak hartuko dira.
- Jarraipeneko ebaluazioak, ikasleen heltze prozesua nola doan jakin ahal izateko.
- Azken ebaluazioa, maila edo ziklo bat bukatzean ikasleen garapen prozesua ezagutzeko.
- Heltze prozesuan egon daitezkeen desfaseak edo aldaketak hautemateko funtzioen lanketa. Eta, horren ondorioz, prebentzio mekanismo bat lortuko dugu.
- Edukien sekuentziak, “Haurreskolak Partzuergoko helburuak eta edukiak” dokumentuan azaltzen direnak baino zehatzagoak egitea.

* Egile horien Heltze prozesuaren Behaketarako Gidatik aterata. Dokumentu osoa eta Laguntza Goiztiarrari buruzko beste informazio interesgarri batzuk GENYSI proiektuaren orrialde honetan lor daitezke: <http://paidos.rediris.es/genysi/framinf.htm>.





3.2.b

Esperientzia Arloak.

ADINA	EXPERIENTZIA ARLOA	
Urtebete arteko haurrak	Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea.	
	Komunikazioa eta irudikapena.	
	Identitatea eta autonomia.	
1 urtetik 2 urtera	Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea.	
	Komunikazioa eta irudikapena.	
	Identitatea eta autonomia.	



3.2.b

1. Identitatearen eta Autonomia Pertsonalaren arloa.

• Urtebetera arteko haurrak.

ADINA	GARATZEN DIREN GAITASUNAK
4 hilabete	- Ahuspez jarrita, burua altxatu eta eskuekin eusten dio gorputzari. - Objektu bati edo beragana doan esku bati heltzeko mugimenduak egiten saiatzen da. - Eskuetan objektu bati eutsiz, behatu, astindu egiten du, baina sarritan galdu ere bai.
5 hilabete	- Objektu bat aurrean jartzen zaionean, eskua luzatzen du objektua hartzeko. - Laguntza txiki batekin eusten dio gorputzari eserita.
6 hilabete	- Bere oinei heltzen die eta ahora eramaten ditu. - Esku batean objektu bat duela beste bat hartzen saiatzen da.
7 hilabete	- Objektuak esku batetik bestera pasatzen ditu eta kolpeak ematen dizkie. - Lau hanketan ibiltzeko lehen mugimenduak egiten hasten da.
8 hilabete	- Lau hanketan ibiltzen da. - Biberoia ahora eramaten du. - Laguntzarekin, eseri arte altxatzen da. - Beso azpietatik eusten badiogu, zutik geratzen da. - Galletak jaten ditu.
9 hilabete	- Erpurua eta hatz erakuslea erabiliz, objektu bat har dezake. - Berak nahi duenean, gauzak aska ditzake.
10 hilabete	- Lau hanketan ibili eta lurlean esertzen da, txandaka. - Hanken gainean tente mantentzen da laguntzarekin.

11 hilabete	- Eseri eta altxa egiten da bakar-bakarrik, sehaskako barrei helduta. - Bi eskuetatik helduta ibiltzen da.	
12 hilabete	- Mastekatzeko errazak diren janari solidoak jaten hasten da. - Janzterakoan, besoa edo hanka luzatzen ditu, laguntzeko asmoz.	

• 1 urtetik 2 urtera.

ADINA	GARATZEN DIREN GAITASUNAK	
1 urte.	- Koilara hartzen du eta ahora eramaten du. - Ibiltzen da, baina laguntzaz. - Ura edateko gai da, bi eskuekin helduta. - Inoren laguntzarik gabe ibiltzen da. - Pilota bultzatzen du hanka batez. - Koilara eta sardexka erabiltzen hasten da, baina oraindik ez da oso trebea. - Eskailerrak oinez igotzen ditu, beste batek eskutik eramanez gero. - Koilara erabiltzeko ohitura du. - Maitasuna adierazten du (musuak, besarkadak).	
1 1/2.	- Eskatzen bazaio, zirriborroak egiten ditu. - Laguntzarik gabe esertzen da aulki baxu batean. - Kuboak jartzen ditu bata bestearen atzetik, tren bat imitatuz. - Kentzeko errazen diren arropak berak erantzten ditu. - Bere gorputzeko zenbait atal ezagutzen ditu (begiak, ileak, ahoa, belarriak). - Eskuak eta aurpegia garbitu eta lehortzen ditu, laguntzarik gabe.	
2 urte	- Trazuak kopiaitzen ditu, norabide jakinik gabe. - Esfinterrak kontrolatzen ikasteko prozesuan lehen urratsak ematen hasten da.	



3.2.b

2.

Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzea.

• 0 - 1 urte.

ADINA	ADINAGARATZEN ARI DEN JOKABIDEA
3 hilabete	- Helduen keinuei eta adierazpenei irribarre batekin erantzuten die. - Burua mugitzen du, objektu baten mugimenduari jarraituz.
5 hilabete	- Eskuetan eusten dio objektu bati, eta beste objektu bati begiratzen dio. - Zapi bat aurpegitik kentzen du.
6 hilabete	- Irribarre egiten du ezagutzen dituen pertsonen aurrean. - Eskuetan dituen objektuekin jolasten da (astintzen, kolpeak ematen).
7 hilabete	Arretaz begiratzen die hotsa egiten duten objektuei.
8 hilabete	- Arreta beragan jartzea nahi izaten du, eta, hori lortzeko, irri begiradak erabiltzen ditu. - Erortzen zaizkion objektuak bilatzen ditu. - Pixka bat ezkutatuta dauden jostailuak aurkitzen ditu.
9 hilabete	- Erabat ezkutatuta dagoen jostailua estaltzen duena kentzen du. - Jende ezaguna eta ezezaguna desberdin hartzen ditu.
10 hilabete	Joko interaktiboetan (cucu-trás...) parte hartzen du.
11 hilabete.	Objektuak hatz erakuslearekin seinalatzen ditu.
12 hilabete	- Kaxa batean objektuak sartzen ditu eta kaxatik ateratzen. - Barrez hartu zaizkion ekintzak errepikatu egiten ditu. - Jolasak hasten ditu eta heldua zirikatzen du, berarekin jolas dadin.



- 1 urtetik 2 urtera.

ADINA	ADINAGARATZEN ARI DEN JOKABIDEA
1 urte.	• Helduek eskatzen diotenean, gauzak "ematen ditu". • Objektuen funtzionamenduekin lotuta dauden jarduerak imitatzen ditu. • Materialak aztertu eta maneiatzen ditu (lurra, plastilina...) • Maneiatzeko jokoekin dibertitzen da (estaltzea, estalkiak kentzea, sartu-ateratzea...).
1 1/2.	• Beste haur batzuen ondoan jolasten da. • Eskolan alde batetik bestera ibiltzea atsegin du. • Helduari laguntzen dio materialak biltzen. • Panpinari jaten ematen dio eta oheratu egiten du. • Aldaketak gertatzen direnean, arreta handiz jarraitzen die (musika bukatzen denean, argia itzaltzen eta pizten denean...).
2 urte	• Balde bat hondarrez bete eta hustu egiten du behin eta berriro. • Jostailuak jasotzen ditu, agintzen bazaio.





3.2.b

3.

Komunikazio eta irudikapena.

- 3 hilabetetatik 1 urtera..

ADINA	ADINAGARATZEN ARI DEN JOKABIDEA
3 hilabete	• Hitz egiten edo keinuka ari direnei begiratzen die. • "Bestee" irribarre egiten die. • Bere ahotsarekin jolasten da. • Ezpainak ireki eta ixten ditu, eta soinuak egiten ditu (ba, ma). • Helduak egiten dituen soinuak errepikatzen ditu (a, j). • Burua jirutzen du bere izena entzuten duenean.
6 hilabete	• Bokal hotsak imitatzen ditu.
8 hilabete	• "Agur", "txalo", "cinco lobitos" eta horrelakoen keinuak imitatzen ditu.
9 hilabete	• Irribarre egiten du edo kulunka egiten du musika entzutean. • Zenbait objektu ezagun bereizten ditu (biberoia, txupetea...), aipatzen zaizkionean.
11 hilabete	• Eztularen moduko hotsak imitatzen ditu.
12 hilabete	• Hala-hola hitz egiten du eta bi silaba jarraian ahoskatzen ditu. • Besteek esandako silabak errepikatzen ditu. • Nahita ahoskatzen ditu "ama" eta "aita".



- 1 urtetik 2 urtera.


ADINA	ADINAGARATZEN ARI DEN JOKABIDEA
1 urte.	• Hatz batez adierazten digu zer nahi duen. • "Aita" eta "ama" ez den beste hitzen bat ere esaten du. • Arreta jartzen du ipuin bat kontatzen zaionean edo kanta bat abesten zaionean. • Objektu jakin bat ikasgelan badagoen ala ez adierazten du, galdetzen bazaio. • Aipatzen diren animalia edo objektu ezagunak marrazki batean zein diren erakusten digu. • Kide edo heldu bati bere izenez deitzen dio.
1 1/2.	• Hamar bat hitz esaten ditu. • Arreta jartzen du heldu batek ipuin bat kontatzen dionean (irudirik gabe). • "Bai" hitza eta keinua erabiltzen ditu. • Animalien hotsak imitatzen jolasten da. • Esaldi konposatuak ulertzen ditu. (Esate baterako: "Ekarri mahaian dagoen baberoa").
2 urte	• Objektuen izenak esan eta marrazki batean non dauden adierazten du. • "Hemen" eta "hor" aditzondoak erabiltzen ditu. • Bere izena esaten du.






3.3.

3. EGOERA.





Haur baten osasuna –fisikoa edo mentala– edota segurtasuna arriskuan jartzen badira, haur horrek tratu txarra jasotzen du. Hori hainbat arrazoiengatik gerta daiteke: aitak, amak edo haurra zaintzeko ardura duen beste edozeinek zerbait egin duelako edo egin ez duelako; beraz, tratu txarra ekintzagatik, egin beharrekoa ez egiteagatik edo zabarkeriagatik gerta daiteke.

Haurrenganako tratu txarra arazo sozial larria da, eta erro kulturalak eta psikologikoak ditu. Edozein maila ekonomikoko eta hezkuntza mailako familiatan gerta daitezke tratu txarrak.

Tratu txarrek haurren oinarrizko eskubideak urratzen dituzte, eta, beraz, tratu txarrak eten egin behar dira; ahalik azkarren, gainera.

Haurrenganako krudelkeria, zentzurik zabalenean, lau motatakoa izan daiteke:

1. Diziplina zorrotzegian oinarritutakoa; horretan oinarritzen diren subjektuak, askotan, erabat moldakaitzak eta arduragabeak izaten dira: alkoholikoak, drogazaleak, kriminalak edo gaizkileak, adimen motelak, etab.
2. Agintearen eta jokabide arau eta erregelen interpretazio zorrotzegia egiteagatik, guraso edo helduek egindako indarkeria edo zabarkeria ekintzak.
3. Krudelkeria patologikoa: horren jatorri mental edo psikologikoa oso zaila da identifikatzen, eta are zailago tratatzen.
4. Krudelkeria mota guztien artean antzematen zailena: ofiziala edo antolatuta dagoena; ezjakintasunagatik, sentsibilitate faltagatik edo haurra babesteko legerik ez dagoelako edo egonda ere betetzen ez delako eragindakoa.



3.4.b Tratu txar motak.

Haurren abusua haurren aurkako tratu txarra edo gehiegikeriazko jokabidea da, eta eragina du alderdi fisiko, emozional eta sexualetan; bestalde, haurraren zabarkeria ere izan daiteke, eta, orduan, baliteke haurraren ongizatea eta osasuna arriskuan jartzea edo hurrei benetako kaltea sortzea.

Haurren aurkako tratu txarrak **zerbait egiteagatik edo ez egiteagatik eragindakoak izan daitezke**.

- **Zerbait egiteagatik** eragindako tratu txarrak, era berean, hainbat motatakoak izan daitezke: **tratu txar fisikoa, jaioberrien abusua, tratu txar psikologikoa edo emozionala eta abusu sexuala**.
- Zerbait **ez egiteagatik** eragindako tratu txarrak, berriz, abandonatzea edo zabarkeria izan daiteke, eta hori, halaber, bi motatakoa izan daiteke: **zabarkeria fisikoa eta heziketarena**.

3.4.c Tratu txar motak, adinaren arabera.

● Bederatzi hilabete baino gutxiagoko haurrak.

Haurrek hiru hilabete edo gehiago izan arte ez dakite gorputza jirutzen. Helduen mende daude batetik bestera mugitzeko.

Beraz, mina norbaitek eraginez gero, zaintzen duenak eragingo dio; hala ere, inoiz ez da baztertu behar istripuaren aukera. Ondorioz, haur txikien ubeldurak ez direla istripuek eragindakoak esan aurretik, aztertu egin behar dira.

Haurrak "hezur hauskorak" edo hemorragiak izateko joera hereditarioa dutela esatea ohikoa izaten da.

Horrelako egoerak ez dira oso ohikoak, baina azterketak egitea medikuen ohiko zainketaren barruan sartzen da.

Umetxoek gaixotasun edo lesio larriak gainditzeko ahalmen ikaragarria dute, baina zaharagoak diren haurrak baino ahulagoak ere badira.



Ekintza txiki baina bortitz batengatik hil daitezke, ezin baitute erasotzaileagandik ihes egin edo ezkutatu.

Horregatik, ezin da kritikatu haurrarekiko arduraz jokatzegatik hutsegiteak egitea, haur txiki bat arriskuan egon daitekeela kontuan hartuta.

● Lau hanketan edo bitan ibiltzen hasi diren haurrak.

Haurrak mugitzeko gai direnean, errazago hartzen dute min. Oro har, zauriak kopetan agertzen dira, edota altzariekin edo lurrian jo eta kolpea jasotzeko aukera gehien dituzten gorputz ataletan: ukalondoetan, belaunetan, hanketan eta abarretan.

Horregatik, horrelako kolpeak ageri direnean, askotan, hau baino ezin da esan: kolpe horiek eta nahi eragindakoak (istripuen ondoriozkoak ez direnak) bat datozela.



HPBak DITUEN HAUR BAT
PARTZUERGOKO HAURRESKOLA
BATETIK BI URTEKO GELARA
ERAMATEN DENEAN.

- GURASOEI ADIERAZI BEHAR ZAIE KOMENI DELA HAURRA HARTZEN DUTEN ZENTROARI HAURRAK HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUELA JAKINARAZTEA.
- BAIMENA ESKATU BEHAR DA HAURRARI BURUZKO INFORMAZIOA BI URTEKO GELARA PASATZEKO.
- HAURRESKOLAN ESKU-HARTZE GOIZTIARREKO PROGRAMA EGITEN DUEN ERAKUNDEAREN ETA HAURRESKOLAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETU BEHAR DA.

● EZOHIKO EGOERAK.

Egoerak multzotan bana ditzakegu; hala ere, kontuan hartu behar da hezkuntza premia berezien arloa oso zabala dela, eta premia horiek hainbat eta hainbat egoera pertsonal eta sozial dituzte-la atzean, eta, beraz, egoeraren arabera, balitekeela beste arreta berezi batzuk behar izatea.

Egoerak, multzoka, hauek izan daitezke:

- Haurreskolara etortzen direnean, zenbait umetxok, hainbat patologiaren eraginez, osasun laguntzak eta laguntza teknikoak behar dituzte; esaterako, aparatu protesikoak, arnasmagailuak, etab.



- Diabetesa duten hurrei gluzemia kontrolatu behar zaie une jakin batzuetan, eta shock diabetikoaren kontrolerako zenbait neurri hartu behar izaten dira.
- Konbultsioak edo krisi epileptikoak izateko arriskua dituzten haurrak.
- Alergiak dituzten umetxoak: alergia konplikatuak janariei edo alergia larria janariei, shock anafilaktikoa izateko horrek dakarren arriskuarekin
- Gorreria duten haurrak
- Etab.

Horrelakoetan, sarritan, nahikoa izaten da zentroaren eguneroko ohituretan protokolo medikoak sartzea.

Adibidez: diabetesa duten hurrei gluzemia neurtzea, hipogluzemia sintomak hautematea eta horrelakoetan zer egin behar den jakitea. Edo, arazo larriagoa baldin bada, intsulina ematea. Intsulina emateko moduaren arabera, beharbada osasun arloko espezialista batek edo familiak eman beharko dio; horrelakoetan, ordutegiak moldatu beharko dira haurrari behar bezalako laguntza emateko.

Beste batzuetan –esaterako, haurrak janari batzuei alergia larria dielako shock anafilaktikoa izateko arriskua dagoenean–, nahitaezkoa da larrialdietarako protokoloa zehaztuta edukitzea.

Dena den, ekintza horiek guztiak Haurreskolaren eguneroko ohituretan sartzen dira eta haur bakoitzak behar dituen zainketa berezien barruan.

Batzuetan bakarrik, ratioa aldatu beharko da, egoera bereziengatik: hainbat urritasun dituzten haurrak daudelako, tresna edo aparatu bereziak erabili behar direlako, edo behaketa etengabeak eta oso denbora aldi laburretan egin behar direlako.

Oso egokia izango litzateke, haurrak gorak edotaitsuak direnean, haiekin egongo diren hezitzaileek prestakuntza osagarria –erraza, baina eraginkorra– jasotzea; horrela, komunikatu ahal izateko jarraibideak eta tresnak izango litzukete.





Itsuentzat, IBTak daude, eta, gorrieria duten haurrentzat, berriz, lurralde bakoitzean lanerako jarraibideak eta tresnak ematen dituzten erakundeak, bai eta eginkizun horretarako prestakuntza "ad hoc" ematen dutenak ere.

Laguntza goiztiarreko zerbitzuak ematen dituzten erakundeak baliabide onak izan daitezke jarraibideak emateko eta lana gainbegiratzeko, urritasunak dituzten hurrekin lan egiten dugunean; alegia, hezkuntza premia bereziak daudenean.



HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUEN HAUR BATEN FAMILIA

EZAUGARRIAK

- Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak jaiotzen direnean, ezustekoa da gurasoen-tzat; gertaera ulertu eta onartu behar dute, eta, horretarako, ezinbestekoak dira denbora, laguntza eta informazioa.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten seme-alaben familiek, une batzuetan, zalantza egin dezakete edo, beste batzetan, egoera ukatu. Une horietan, informazioa eta laguntza ematea komeni da, jarrera alda dezaten; alegia, beren seme-alaben arazoak konpontzeko jarrra aktiboa har dezaten, eta beste profesional eta zerbitzu batzuekin lan egin.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren gurasoek balio handia ematen diote beren seme-alabek gainerakoekin gauzak egin ahal izateari, eskola eta ingurune berean.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren familiek parte hartu nahi izaten dute eskolan, beren seme-alaben ikaskuntza prozesuan hobekuntzak egiten laguntzeko.

*

"Haur hezkuntzako 2. zikloko hezkuntza premia bereziak" liburutik egokituta. Alicia SAINZ MARTINEZ eta beste, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailaren web orritik jaitz daiteke: <http://www.hezkuntza.net>



ZER PREMIA DITUZTE?

- Familiek jakin beharra dute beren seme-alabek zer egiten duten ondo, haien garapenaren alderdi positiboak eta egiten dituzten aurrerapenak.
- Ama eta aitentzat garrantzitsua da beren seme-alabekin eskolan egiten den lanari buruzko informazioa izatea, eta ikaskuntzaren lehentasunak eta haurren eboluzioa ezagutzea.
- Beren seme-alaben eboluzioari buruz konfiantzaz hitz egiteko aukera eta beharrezko denbora ematea behar dute.
- Seme-alabak Haurreskolan nola hartzen diren izugarri izaten dute kontuan eta asko baliosten dute besteekin nola integratzen diren, arreta egokia ematen zaien, haurren premiak asetzen diren, etab.
- Oso positiboa izan liteke harremana izatea arazo berak dituzten edo arazo horiek konpontzeko lan egiten duten beste familia batzuekin, edo autolaguntza taldeekin edo guraso elkarteekin.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Ezintasunak dituzten haurren familiek tentsio handia izaten dute sarritan; Haurreskolan hasteko unea bereziki zaila izaten da.
- Haurreskolan hasteko unean, beren seme-alabak dituzten premiei aurre egin behar diete; izan ere, une horretan geratzen dira agerian haurrek dituzten urritasunen ondorioak. Orduan eman behar zaie gurasoei behar duten informazioa eta orientazioa, bai eta beren seme-alaben eskola prozesurako ekintza eta jarraipen plana ere.





- Gurasoek aurre egin behar diete beren seme-alabek zenbait urritasun izatearen ondorioei (inoiz ez dela ibiliko, ez duela entzungo...); muga horiek onartzeko prozesuak –Haurreskolan hasteko unean izaten da– denbora behar du, eta errespetatu egin behar da.
- Familia bakoitzak premia batzuk ditu, eta, gainera, denboran aurrera joan ahala aldatu egin daitezke; horregatik, ezintasunak dituen haur bati laguntzen aritzen diren pertsonak oso kontuan hartu behar dituzte une jakin batean familiek izan ditzaketen premiak.

ZERTAN LAGUN DIEZAIKEGU?

- Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren familia guztiek behar dute laguntza unerik baten edo bestean, eta familia batzuek beste batzuek baino laguntza handiagoa behar dute.
- Garrantzitsua da seme-alaben premiei eta egiten duten aurrerapenei buruzko informazioa ematea; laguntza jasotzen duten familiek hobeto ezagutu eta onartzen dituzte seme-alabak, eta, horren ondorioz, ez dute hain gaizki pasatzen eta jarrera positiboagoa dute beren seme-alabekiko eta eskolarekiko.
- Ikastetxeak duen lan egitasmoa aurkeztu behar zaie, eta eskola eta familiaren arteko lan-kidetza nolakoa izan daitekeen erabaki behar da guztion artean.
- Familientzat oso positiboa izan daiteke beren seme-alabaren arazo bera duten beste haur batzuen gurasoekin harremana izatea; beste pertsona batzuek zailtasun berak dituztela jakitea lasaigarria izan daiteke.





• ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO NEURRIAK •

- Familiarekin eta haurren premia bereziei erantzuten dieten pertsonekin koordinatzeko sistema bat izatea. Bilerak edo topaketak egiteko egunak adostu behar dira, zer helburu izango duten, eskolan duten eboluzioaren jarraipena egin behar den ala eboluzioaren alderdi jakin bat berrikusi –esaterako, autonomia ohiturak–, etab.
- Erabilgarria izan liteke "gertaeren koaderno" bat egitea eskola eta familiaren artean, eguneko edo asteko gertaera nabarmenenak bertan adierazteko; bileran berrikusi egingo da, egon litezkeen aurrerapenak edo zailtasunak ikusteko.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren familiei ikastetxearen hezkuntza kudeaketan parte hartzeko aukera eman behar zaie –horretarako organo bereziak daude–.
- Lankidetzak finkatzea, **HAURRESKOLAK** eta familiek egiten duten lanari osotasuna emateko; horietan, jarduera motibagarri eta ulergarriak sartu behar dira gurasoentzat. Guraso eskolak oso erabilgarriak izan daitezke guraso horien seme-alabek izan ditzaketen arazo zehatzak lantzeko, informazio hitzaldiak emateko, etab.



DOWN-EN SINDROMEAK DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Down-en sindromea duten haurren lehen urteetako garapena, oro har, gainerako haurrenaren oso antzekoa da.
- Dena den, jokabidearen hainbat alderditan haur horiek bereizitasun batzuk dituzte; horietan, beste haurrekiko desberdintasuna handia da, eta arreta berezia eskaini behar zaie.
- Down-en sindromea, batzuetan, beste arazo batzuei lotuta agertzen da; horien artean ohi-koak dira, besteak beste, bihotz malformazioak eta ikusmen eta entzumen urritasunak.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Bestearen pertzepzio emozionala ona da.
- Gaitasun handia dute imitazioak egiteko.
- Oro har, ez dute hizkuntza ulertzeko arazorik.
- Ikusmen eta oroimen ona dute, eta, horregatik, errazak izan ohi dira haientzat loturak egiteko ariketak, formak bereiztekoak, irudi bidez egiten direnak eta abar.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Zailagoa egiten zaie ahozko hizkuntzan adieraztea, eta ohi-koa da horretan atzerapena izatea; ahozkoaren ulermena, berriz, askoz hobea dute.
- Mugimenduari dagokionez, zailtasun handiak dituzte motrizitate xehearen trebetasunak eskuratzeko (lotzea, askatzea...), eta alderdi horretan entrenamendu handiagoaren beharra dute.
- Zailtasun handiagoak dituzte entzumenean eta oroimenean, ikusmenean baino.



ZERTAN LAGUN DIEZAIKEGU?	INDARTU BEHARREKO ALDERDIAK	ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK
• Batzuetan, denbora luzeagoa behar izango dute adin bereko beste haurrek dituzten helburuak lortzeko. • Ikasgelako jarduerak, egoerak eta elkarrekintzak oso aberatsak dira haur hauen garapen sozial, garapen komunikatibo eta garapen kognitiborako. • Jakina, emaitzak hobeak izango dira kasu hauetan: eginkizuna ikusizko laguntzarekin batera ematen denean –esaterako, argazkiak, marrazkiak edo seinaleak–, eta ahozko hizkuntzarekin batera hizkuntza espresiboa, eskuena edo keinuena ere erabiltzen denean.	• Arreta, pertzepzioa eta motibazioa. • Objektuak aipatzea, ekintzak azaltzea, etab. • Autonomia lantzea. • Ahozko hizkuntza garatzea. • Mugitzeko trebetasunak. • Arreta eta kontzentrazio ohiturak lantzea.	• Errefortzu sozialaz baliatu: irribarre egin, begiratu, lanean ari dela bere ondoan egon, etab. • Jarduera hasieran ahalik eta gehien erraztu. • Materiala egokitu, errazago ikus dezaten. • Ikusizko indargarriak erabili, haurren arreta erakartzeko; esaterako, txartelak, seinaleak, argazkiak, etab. • Laguntza fisikoarekin batera, ahozko instrukzioak eman eta, zenbait jardueratan, ereduak eman.



GARAPENEAN ATZERAPEN OROKORRA DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Hezkuntzaren etapa honetan, garapen atzerapen orokorra duten haurrek, beren eboluzioan atzerapena izan arren, adin bereko gainerako kideen antzeko garapen ereduari jarraitzen diete.
- Atzerapen orokorraren bereizgarria da ez diola arlo jakin bati eragiten, baizik eta garapen mentalaren, afektiboaren eta sozialaren arlo guztiei.
- Askotan, estimulazio egokiaren bitartez, adin horretako gainerako haurrek izaten duten garapenaren eta erritmoaren antzekoak izaten dituzte; izan ere, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko izaten dute atzerapena.
- Beste batzuetan, nahiz eta aurrerapenak lortu, etorkizunean adimen urritasuna agertuko da.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Elkarrekintza sozialari eta ikas-kuntzari oso ondo erantzuten diote, haurren heltze prozesuari egokitutako jarduerak proposatzen zaizkienean.
- Errazago ikasten dute ahozko estimulazioaz gain ikusizkoa ere erabiltzen bada mezuak ulertzeko.
- Gauza bat ondo egiten dute-nean, txikia izan arren, hori indartzea gustatzen zaie.
- Edozein haurri bezala, aktibitatea atsegin zaie, jokoak, objektuak aztertzea, mugitzea; baina jarduera programak, horien denbora eta erritmoak egokitu egin behar dira haur hauen garapen prozesura.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Zailtasun orokorrak dituzte eta horiek garapenaren zenbait arlori eragiten diete; desfaseak dituzte beren gorputzaren kontrolean, koordinazioan eta eza-gutzan.
- Jarduerak egitean agertzen duten motibazio mailan eragina du ahozko ulermen urriak, arre-ta ohiturak nahikoa finkatuta ez daudelako edo agintzen zaien jarduera beraientzat oso zaila delako.
- Atzerapena agertzen dute kontzeptuak osatzeko, kategoriak ezartzeko, sailkapenak egiteko, objektuen edo gertaeren arteko loturak egiteko eta abarretarako.
- Hizkuntzaren arloan atzerapena dute, gehiago edo gutxiago, bai adierazpenean bai ulermenean; batez ere, testuinguruak laguntzen ez badu.



ZERTAN LAGUN DIEZAIKEGU?	INDARTU BEHARREKO ALDERDIAK	ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK
• Edukiak eta jarduerak sekuentzian banatu eta egokitu beharko dira, aurretiko ezagutzak kontuan hartuta. • Denbora gehiago eman behar zaie ikasteko, eta beren ingurua, objektuak, pertsonak, beren gorputza eta abar interpretatzeko eta ulertzeko.	• Norberaren gorputza ezagutztea. • Espazioan moldatzea. • Mugitzeko trebetasunak lantzea, psikomotritzitatea estimulatzearen eta jokoaren bitartez. • Beren kabuz jarduteko trebetasunak lantzea. • Objektuak eta espazioak bereiztea eta esperimentatzea.	• Laguntza fisikoa eman, haurren euskarri izateko, gidari izateko edo haien ondoan egoteko, jarduera ondo egin dezaten. • Jarduerari, denborari eta espazioari egitura sendoak eman, haurrak espazio-denbora nozioak barnera ditzan. • Ereduen eta imitazioaren bitartez lan egin, beharrezkoa denean. • Jokoak eta psikomotritzitatea eta espresioa lantzen duten egoerak baliatuta, oinarrizko kontzeptuak landu. • Jarduerak arrakastaz egin ahal izateko, ikusizko eta keinu bidezko laguntzak eman. • Ikaskuntza lorpenak eta arrakastak balioetsi.



IKUSMEN URRITASUNA DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Ikusmen urritasuna edo anblipia duen haurrek adin bereko beste edozein haurren antzeko garapena dute, baldin eta giro berdintsuan bizi badira eta nahikoa estimulazio goiztiar jaso badute.
- Itsumenak berak ez du sortzen arazo intelektualik edo heldutasunezkorik, baina aintzat hartu behar dira egoera horren behar eta berezitasunak.
- Haurrek munduaz dakiten eta sentitzen duten horretan eragina du mundu hori nola iristen zaien -ahoz, entzunez, ukituz, usainduz...-; inguruaren irudikapen mental desberdina egiten dute ikusmen urritasuna duten haurrek eta ongi ikusten dutenak.
- Ikusmenaren estimulazio nahikorik ez badaukate haur lasaiegia bihur daitezke, gutxi eskatzen dutenak, beraientzat ez baita existitzen gorputzez sentitzen ez dutena; bitarteko lana egin behar da ingurunearen eta haurren artean, ez dadin egon mugimendu estereotipaturik, ekolaliarik, eta abarrik.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Beste edonork bezala, nahiago dituzte ahalegin gutxirekin egin ditzaketen ekintzak.
- Ukimen estrategia onak landu ditzakete, objektuen bereizgarriak hautemateko eta identifikatzeko.
- Ikusmenak ematen ez dienaren zati bat entzumenak ematen die, eta bide hori behar bezala landuz gero, ongi egin dezakete aurrera.
- Hobeto aritzen dira jarduera batean arreata, erne egotea, eta inguruko kodeak eta seinaleak bereiztea eskatzen denean.
- Txikiak direnean, haurrek entzunez jasotzen dituzten kodeak ukimenarekin osatu behar dira, bi bideek laguntzen baitute objektuak identifikatzen, espazioan kokatzen eta bertan segitzen dutela antzematen. Zerbait lehendik ukitu bada, entzuteak lagundu egiten du.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Objektu batek espazioan jarraitzen duela geroago ikasten dute ikusmena duten haurrek baino, ukituz eta entzunez bakarrik egin dezaketelako.
- Mugikortasunean atzerapena eduki dezakete, baldin eta ez badugu animatzen iker dezaten, bila dezaten, eta joan daitezen objektu eta pertsonengana, ikusi ezin dituztenak inguruan egon arren.
- Hitz egiteko gai diren arren, baliteke denbora gehiago behar izatea kanpoko pertsonen eta objektuen ekintzak deskribatzeko.
- Zaila zaie kode grafikoa duen informazioa lortzea, prozesatzea eta irudikatzea; beren ikusmen hondarrak aprobetxatu behar dira, eta ikusizko informazioaren ordezkaria ukituzkoa eta entzunezkoa eman.



ZERTAN LAGUN DIEZAIEKEGU?

- Ikusmen hondarrak –baldin badauzkate– ongi baliatzen dituztela ziurtatu, eta, horien bitartez, objektuen azterketa sustatu.
- Irudiak eta abar eskas gertatzen zaizkie, ez badaude behar bezain egokituta eta handituta.
- Landu ukituz eta mugituz ikeritzeko jarraibideak, objektuak aurkitzeko, ezagutzeko eta manipulatzeko.
- Gorputz atalak modu aktiboan erabilarazi, eta eman aukera ekintza eta elkarrekintzarako, inguru fisiko eta soziala behar bezala senti dezaten eta beren autoestimua haziz joan dadin.
- Behar adina denbora eman lanak egiteko.

ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK

- Beren garapenean ikusmen urritasuna arazo denean, laguntza zehatza eman behar zaie.
- Neurri handiko problema figuratiboak eta espazialak eman behar zaizkie. Honelakoetan, ukituz ez dira objektu osora iristen, eta zaila zaie objektua buruan irudikatzea.
- Irakurri eta idazteko Braille sistemarekin hastean, kontuan izan behar da ukimena geldia eta sekuentziala dela, eta arazoak izan ditzaketela informazio konplexuak edo figuratiboak prozesatzeko.
- Ukituta erraz azter daitekeen materiala erabili behar da.
- Mugikortasuna estimulatu behar da, ikusmenaren ordez beste bide batzuk erabili behar baitituzte.
- Sentitzeko hainbat era erabili behar dira, informazioa errazago jaso dezaten eta buruan objektuak, ekintzak eta egoerak irudika ditzaten.



ENTZUMEN URRITASUNA DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Gorreri sakona daukanak ez dauka entzumen funtzionalik eguneroko bizitzarako, eta, horren eraginez, ezin du ahozko hizkuntzarik eduki.
- Haur batzuen gorreria postloku-tiboa da -hau da, ahozko hizkuntza ezagutu edo hitz egin ondoren etorri zaie-, eta, beraz, badauzkate hizkuntza egiturak, ahozko hizkuntza lantzeko oso baliagarriak direnak.
- Hipoakusia daukanak eskas entzuten du eta, protesiarekin edo gabe, nola-halako entzumen funtzionala dauka. Gai da entzunez hizkuntza jasotzeko, baina urritasunak ditu artikulazioan, lexikoan eta egituraketan, hipoakusia maila edo entzumen galeraren arabera.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Eguneroko jardunak egin ditzakete eta horietaz gozatu, baldin eta informazio nahikoa eta egokia ematen bazaie, inguruan gertatzen ari dena uler dezaten.
- Ongi egiten dituzte entzun beharrik eskatzen ez duten jarduerak.
- Gustukoak dituzte eta trebetasunez egiten dituzte ikusizko jarduerak, gorputzez adieraztekoak, arreta jartzekoak, kanpoko mundua ikusiz eta grafikoz irudikatzeak, etab.
- Jarduera bibro-taktilak -esaterako, erritmo-jokoak perkusio tresnekin- oso gustukoak dituzte; izan ere, ez dute entzuten, baina dardarak igartzen dituzte.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Gorreri motaren, mailaren eta sorrera unearen arabera ditzakete zailtasunak, baina zailtasun nagusia ahozko hizkuntza berez ikastea dute.
- Zailtasun nagusia ahozko hizkuntza ulertzea eta erabiltzea da, eta, beraz, ez dute ulertzen ingurua, kulturaren zati handi bat entzunez jasotzen baita.
- Zailtasunak eduki ditzakete gertaerak eta erantzunak aurreikusteko, eta kontzeptu abstraktuak sinbolizatu eta bereganatzeko; izan ere, horiek ez dira ikusizkoak eta hizkuntza egituretan oinarritzen dira.



ZERTAN LAGUN DIEZAJIEKEGU?	INDARTU BEHARREKO ALDERDIAK
- Ahalik eta gehien bultzatu haurren entzumen hondarrak eta erabiltzen irakatsi, isolatuta gera ez dadin. - Edozein komunikazio mota bultzatu, eta komunikatzeko kode bera erabili, bai ahozko hizkuntzaren sistema osagarriak, alternatiboak (zeinuen mintzaira) edota handigarriak (mintzaira bimodala), bai eta kasu bakoitzerako teknika erabilgarriak ere. - Ahozko hizkuntzaren errehabilitazio etengabea eta logopedaren laguntza behar dute. - Hizkuntzaren ahoskera, espresioa, hiztegia eta egiturak zaindu behar dira haiekin edo haien hitz egiten dugunean, hizkuntzaren input-a ondo iristeko. - Ikusizko estrategiak erabili; izan ere, badakigu gorreria duen haurrak ikusizko komunikazioa duela nahiago. - Laguntza teknikoak -besteak beste, entzumen protesiak- oso lagungarriak dira gorreria duten haur askorentzat, eta, horregatik, ahalik eta gehien bultzatu behar da horien erabilera, eta nola zaindu eta gorde erakutsi behar zaie.	- Ez da komeni egin behar dutenari buruzko azalpen batekin hastea; egitea edo ulertzea nahi dugunaren demostrazio batekin hasi behar da. - Haurren arreta erakartzea hitz egiten dugunean; aurrez aurre egon behar dugu, eta ez argi kontra. Tutorearen edo hitz egiten duten haurren aurpegia eta adierazpenak eroso ikusteko moduan jarri behar ditugu. - Fonema askoren ahoskerari eta hitzei ezin zaie antzeman ezpainak irakurrita; horrelakoetan, keinu adierazgarriak eta gorputz espresioa lagungarriak izaten dira. - Kontuan hartu behar da arreta eta ekintza ez direla aldi berean gertatzen -entzuten duten haurrengan bezala-, eta, horregatik, denbora gehiago uztea aurreikusi beharko da zenbait jardueratarako eta espresiotarako. - Gainerakoek ondo ulertzen dituzten inguruko gertaera ugari ulertzeko, informazio osagarria eman behar zaie; horrela, ondorioak aurreikusi ahal izango dituzte eta beldur eta konfiantza falta gutxiago izango dute. Esate baterako, irteko txirrina edo musika entzutean taldea aterantz doanean, gorreria duen haurrari zer gertatu den azaldu behar zaio, eta, gainera, beretzat ulergarriagoa den kode bat erabili behar da.



MUGITZEKO URRITASUNA DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Mugitzeko urritasuna duten haurrek, hasieran, era askotako disfuntzioak izan ditzakete, eta, era berean, horiek nahaste ugari eta konplexuak sortzen dituzte; urritasuna handiagoa edo txikiagoa izango da, lesioaren larritasuna zenbatekoa den, lesioa noiztik duen eta non eragiten duen.
- Urritasun honen sortzaileak izan daitezke: giharretako eta giltzaduretako alterazioak, mugimenduaren nerbioetako alterazioak, bizkarrezur muinekoak (arantza bifidoa) edo garune-koak (garun perlesia).
- Nahaste ohikoenek jarrera, mugimendua eta norberaren autonomian eragiten dute, eta, horien ondorioz, beste hauek sortzen dira: oreka arazoak, mugimendu xehe traketsak, ikusmenean alterazioak, esfinterren kontrol falta, etab.
- Nahasteak larriagoak direnean, ibiltzeko trebetasunean, oratzetan eta mintzairan eragiten dute; horren ondorioz, mintzaira eskuratzeko zailtasunak eta hitz egiteko ezintasuna izaten dira.
- Badira kasu ez hain larriak. Horietan, mugitzeko jarduerak egin daitezke, baina disfuntzio txiki batzuekin.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Mugitzeko urritasuna duen haur batentzat, garrantzitsua da gainerako kideekin heltzeko aukera izatea, giro normalizatu batean jolastu, ikasi eta bizi ahal izatea.
- Askotan, haur hauen adimen gaitasunak erabat arruntak dira, eta mintzairaren eta inguruan gertatzen denaren ulermen maila onargarria lor dezakete, nahiz eta arazo handiak izan ahozko hizkuntzarako eta berena besteei ulertarazteko.
- Jolas egoera batean gozatzeko eta parte hartzeko eta besteekin harremanak izateko aukera dute, giro mugatu batean ez badaude eta elkarrekintza aberats eta askotarikoak izateko aukera ematen bazaie, batez ere.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Ahalegin handia egin behar dute mugimendu xeheko jardueretan mugimenduak eta jarrera kontrolatzeko.

- Askotan, ezinezkoa izaten dute giharrak erabat erlaxatzea -ezta patxadan daudenean ere-, eta egin nahi duten mugimendurako ahalegin handia egin behar dute.
- Ekintza bat egiterakoan, espazioa antolatzeko arazoak izaten dituzte, bai eta ekintza hori egiteko mugimenduen segida irudikatze ere.
- Zailtasun batzuk izan ditzakete ahozko hizkuntzan, arnasaren eta organo fonoartikulatorioen koordinazio okerrarengatik. Mugitzeko zailtasun larriak baldin badituzte, ezinezkoa izango dute komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzea.
- Mugitzeko urritasuna dela eta, elkarrekintza esperientzia gutxi izan dituzte ingurune fisiko eta sozialarekin, eta, horrenbestez, objektuak manipulatzeko, aukera gutxiago dituzte beste pertsona batzuen bitartez gertaeretan eta objektuetan eragiteko, gizartean izandako esperientziak trukatzeko eta abarretarako.
- Sekula ez dituzte pertzepzio eta zentzumenetako esperientzia ugari izango; horregatik, zaila egiten zaie espazio, denbora eta objektuen ezaugarriei lotura duten oinarritzko kontzepzioak eskuratzeko.



	ZERTAN LAGUN DIEZAIKEGU?	INDARTU BEHARREKO ALDERDIAK	ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK
	• Beren kabuz aritzera bultzatu behar dira, eta, horretarako, beren mugimenduen eta jarreraren kontrola erraztu behar da. Kontrol hori pixkanaka eskuratuko dute, trebetasun berriak antolatuz, garatu eta eskuratzen dituzten heinean. • Haurren ekintza erritmo motela errespetatu behar da, eta denbora nahikoa eman eta erantzuna itxoin, egoera norberak konpontzeko, gu aurreratu gabe. • Mintzaira eskuratzetik baduten haurren ahalmenari etekina atera behar zaio, nahiz eta akatsak izan artikulazioan, intonazioan erritmoan eta abarretan. • Mugimenduen hondarrei ahalik eta etekin handiena atera behar zaie, norberaren autonomia eta ikaskuntzarako. • Objektuak, jostailuak, irudiak eta abar haurren eskura jarri behar dira, kontingentzia loturak sortuz eta objektuen gogo irudikapenak egin ditzaten.	• Oztopo arkitektonikoak kendu behar dira: arrapala edo igo-gailuak jarri eta eraikin osoan barandak jarri, ateak zabalagoak egin, komunak egokitu, etab.; horrela, zentroan bakoitzak bere kabuz mugitzeko aukera izango du. • Haurren ikasgelako altzariak egokitu egin behar dira, batetik bestera mugitzeko erraztasuna izan dezaten eta modu egokian eserita egon daitezten. Horretarako, arbela edo ispilua mugituko dugu; eserleku bereziak jarriko ditugu, irrista ez daitezkeen; aulkia biziak erabiliko ditugu; arbelek behar bezalako inklinazioa izango dute, etab. • Ikasgelan erabiltzen diren material didaktikoak egokitu egin behar dira, errazago manipula ditzaten, ballabide hauen bitartez: euskarriak, gainazal magnetikoak, ez irristatzekoak, etab.	• Komunikazio era guztietan arreta jarri, haiek nahita egindakoak direnean, keinuen bitartez -buruaz, eskuez, begiez edo gorputz osoaz-. • Komunikaziorako jokabideak izan daitezkeenak behatu eta baliatu; esaterako, keinuak, begiradak, hotsak. Horrela, esanahi bat emango diegu, adierazgarriak izan daitezkeen. • Ahozko mintzairarik ez duten haurrei bestelako sistemak erabiltzen irakatsi behar zaie, ingurunearekin komunikatu ahal izateko. Hitz egiteko modua ulergaitza baldin bada, beharrezkoa da komunikaziorako sistema handigarri bat eskuratzea eta berentzat baliagarriak diren laguntza teknikoak hautatzea.



AUTISMOA DUTEN HAURRAK

EZAUGARRIAK

- Autismoa garapenaren nahaste larria da, eta ezaugarri hauek ditu: nahaste handiak jokabidean, komunikazio sozialean eta garapen kognitiboan, guztiak aldi berean.
- Sarritan, autismoa duten haurrek adimen atzerapena izaten dute; haurrak oso desberdinak izan daitezke, baina guztiek izaten dituzte zailtasun handiak ikasteko eta ondokoekin harremanak izateko.
- Maila handiagoan edo txikiagoan, mila haurretik bati eragiten dio eta adimenaren garapenarekin lotutako gaixotasun bat baino gehiagoren ondorioz sortzen da.
- Ingurune sozialaren ulermen eza larria izaten da, eta hori oztopo da haurrek beste pertsona batzuekin harreman afektiboak izateko, besteek zer pentsatzen edo sentitzen duten jakiteko; horregatik, oso zaila egiten zaie gainerakoekin elkarrekintzak eta harremanak izatea.
- Haur hauen zaletasunak oso mugatuak eta berdinak izaten dira egunero, eta mugimendu errepikakorrek egiten dituzte. Ez dute jokoaz eta irudimenezko jardueraz gozatzeko gaitasunik.

- Zailtasun handiak dituzte komunikatzeko eta ahozko hizkuntza edo mimikarena eraginkortasunez erabiltzeko, nahiz eta batzuek garatzen duten. Hala ere, hizkuntza bitxia egiten dute, ahozko estereotipiekin, eta gutxitan erabiltzen dute emozioak edo ideiak adierazteko.

- Arreta egokia emanez gero, heltzen doazen neurrian, aurreapenak egiten dituzte, baina gehienek laguntza edo zerbitzu egokiak beharko dituzte bizi kalitatea hobetzeko.

ZER DUTE GUSTUKO ETA
ZER EGITEN DUTE ONDO?

- Ahozko komunikazioa edo komunikazio sozialeko maila altua eskatzen ez duten jarduerak; esate baterako, parekatzeko jarduerak, lotzekoak, manipulatzekoak, eraikitzeak, etab.
- Autismoa duten haur gehienek musika gustukoa dute, eta hori oso erabilgarria izan daiteke espazioa eta denbora egituratzeko.

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

- Autismoa duten haurrek, garapen sozialerako eta komunika-

ZER ZAILTASUN DITUZTE?

_zioaren garapenerako behar diren trebetasunen gabezia dela eta, zailtasunak dituzte imitatze, besteek pentsatzen dutena ulertzeko eta arau sozialak ulertzeko.

- Komunikazio eskasa dute, eta, beraz, errendimendu eskasa izaten dute komunikaziorako gaitasun handia behar den jardueretan.
- Joko sinbolikoak –egoerak imajinatzea edo rolak irudikatzea–, zailak gertatzen zaizkie.
- Jokabide arazoak izan ditzakete; batez ere, ingurunea ulertzeko behar diren trebetasun sozialen gabezia dutelako edo autonomia ohitura oinarritzkoak eskuratzen atzerapena dutelako –esaterako, elikadura, esfinteren kontrola, etab.–.
- Arazoak dituzte denbora antolatze eta ingurunearen hizkuntza kodeak ulertzeko, gertaerak aurreikusteko, besteen emozioak eta espresioak ulertzeko eta abarretarako.
- Zaila egiten zaie beste pertsona batekin batera jardutea eta zerbaitetan arreta jartzea: elkarrekin objektu bati begiratzea, gauza bati buruzko atsegina edo desatsegina adieraztea, etab.



ZERTAN LAGUN DIEZAIKEGU?	INDARTU BEHARREKO ALDERDIAK	ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK
• Txoko bakoitzaren ikur adierazgarriekin, jardueren argazkiekin, eguraldiaren grafikoekin eta abarrekin lagunduko diegu. • Argi azalduko zaie, argazki edo marrazkien bitartez, egunean zehar egiten diren jardueren denborazko sekuentzia. • Autonomia ohitura oinarritukoak irakatsi behar zaizkie: elikadura, garbiketa, esfinterren kontrola... Horrela, hobeto integratuko dira eta ez dute izango ohitura horien gabeziak sor lezakeen arazorik. • Jarduera laburrak, egituratuak, errazak eta argiak eman behar zaizkie, hobekuntzak egin ahal izateko eta pixkanaka eginkizunetan kontzentratzea lortzeko. • Objektuak era egokian manipulatatu eta aztertu behar dituzte. • Haurrentzako joko interaktiboak egin behar dituzte: cu-cu, ezkutatzea eta bilatzea, "zerbait falta da, non dago?", panpinei jaten ematea, etab. • Ekintzen imitazioak egitea eskatzen duten abestiak eta jokoak egin. • Haurrari irakatsi egin behar zaio, eta haurrarekin begiratu behar zaie laminei, objektuei, marrazkiei, jolasei eta abarrei.	• Garrantzitsua da alderdi hauek behatzea: nola komunikatzen diren, noiz, zer egoeratan, norekin eta abar. Komunikazioa ahozkoa izan ez arren, komunikazioarako edozein jarrera hartu behar da kontuan, eta jarrera hori bultzatu eta erabilgarri eta praktikoa egin behar da. • Ingurune koherentea, ordenatua, egituratua, aurreikus ditzaketen gauzak dituen, eguneroko ohiturak dituen; noizbait, orde, eten beharko dira ohitura horiek, komunikazioa bultzatzeko. • Egituratu egin behar dira jarduerak, denbora, espazioa eta materialak, gertaerak aurreikusi ahal izan ditzaten.	• Hizkera erraza eta haurrak duen mailari egokitu erabili. • Orain dela gutxi gertatutakoei, gertakizun zehatzei edo bistan dituzten objektuei buruz hitz egin. • Ikusizko laguntza eman, bai eta entzutezkoa ere -esaterako, musika eta txirrinak-, mezuak erraz uler ditzaten. • Oso erabilgarria izan daiteke eskolako eta familiako "gertakizunen" koaderno bat izatea, eta bertan eguneroko gauza txikiak idaztea. Aurrerapenak eta sor daitezkeen zailtasunak zer egunetan berrikusiko diren adostu behar da familien eta prozesuan parte hartzen duten profesional guztien artean -tutorea, laguntzailea, aholkularia, etab.-, curriculum egokitzapenari buruzko erabakiak hartzeko edo laneko plangintza bati jarraitzeko.
	ESKU HARTZEKO ETA LAGUNTZEKO JARRAIBIDEAK	
	• Emozioak argi adierazi, ulergarriak izan daitezten. • Emozioak eta espresioak neurritz gain adierazi. • Imitazioa landu. • Ez eman gehiegizko azalpenik, haurra nahas ez dadin.	

